BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

1817

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 9koa, Gazteria eta Emantzipazioko sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako dirulaguntzak ematen dituena.

2023ko irailaren 25ean, 132/2023 Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programa arautzen duena.

2024ko abenduaren 26an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Gazteria eta Emantzipazioko zuzendariaren abenduaren 18ko ebazpena. Horren bidez, garapen-lankidetzako erakundeei dei egiten zaie 2025erako «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkez ditzaten.

Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenaren 8. artikuluko 1. atalarekin bat etorriz, Balorazio Batzordeak 2025eko urtarrilaren 29an egindako proposamena ikusita, 2025eko otsailaren 3an Gazteria eta Emantzipazioko zuzendariak behin-behineko ebazpen-proposamena egin zuen, hautatutako eta hautatu gabeko proiektuen eta plazen zerrendarekin. Behin-behineko ebazpen-proposamen hori erakunde interesdunei jakinarazi zitzaien, eta 10 egun balioduneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

2024ko abenduaren 18ko ebazpenaren 8. artikuluko 2. atalaren arabera, alegazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, Gazteria eta Emantzipazioko zuzendariak behin betiko ebazpen-proposamena egin zuen 2025eko otsailaren 20an.

Behin betiko ebazpen-proposamena erakunde interesdunei jakinarazi ondoren eta emandako dirulaguntzak onartzeko 5 eguneko epea igaro ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programan onartutako 2025eko proiektuei dirulaguntza ematea. Proiektu horiek I. eranskinean daude jasota.

Bigarrena.– II. eranskinean agertzen diren hutsik geratu diren proiektuen zerrenda ezagutaraztea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratu dadin agintzea, jakinarazpen-efektuak izan ditzan, «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programa arautzen duen 132/2023 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Hala ere, erakunde interesdunei berariaz eta banaka jakinarazi ahalko zaie.

Laugarrena.– Ebazpena erakunde interesdun guztiei jakinarazteko agintzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia

Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 9a.

Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordea,
XABIER LEGARRETA GABILONDO.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN 2025EKO «EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN» PROGRAMARAKO ONARTU DIREN PROIEKTUAK ETA PROFILAK

Esp.	Euskadiko GGKE	Tokiko GGKE	Proiektua	Profilak	Herrialdea	Herria	Profil-kopurua	Emandako laguntza
001-JVC-2025	Misiones Diocesanas Vascas Vitoria	Fundación Raíces y Sueños de San Isidro	Recuperación de la Cultura Montubia en San Isidro	Soziologia/Antropologia/Kazetaritza (2)	Ekuador	Cantón Sucre	2	2.000
002-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	San Viator Cutervo	Fe y Alegría 69-San Viator de Cutervo	Haur Hezkuntzako Irakaslea (irakasle-ikasketak) (1) Lehen Hezkuntzako Irakaslea (irakasle-ikasketak) (1) Psikologoa (1)	Peru	Cutervo	3	3.000
003-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	Fundación Anna d'Ambrosio	Centro Educativo La Sonrisa de Marielle	Logopeda (1) Terapeuta okupazionala (1) Terapeuta fisikoa (2) Gorputz-hezkuntzako irakaslea (1)	Peru	San Juan de Lurigancho - Lima	5	5.000
004-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	San Viator Collique	ACEV (Asociación de Comunicadores y Educadores Viator)	Lehen Hezkuntzako irakaslea (irakasle-ikasketak) (2) Generoan espezialista den gizarte-langilea (2) Bigarren Hezkuntzarako zientzietako irakaslea (1) Psikopedagogoa edo psikologoa (1)	Peru	Collique - Lima	6	6.000
005-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	San Viator Yungay	San Viator de Yungay Caraz	Haur Hezkuntzako irakaslea (irakasle-ikasketak ingelesarekin) (1) Lehen Hezkuntzako irakaslea (3) Bigarren hezkuntzako, hizkuntzako edo gizarteko irakaslea (1) Kazetaritza-Irrati bidezko komunikazioa (1)	Peru	Yungay	6	6.000
006-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	SERSO Honduras	SERSO Honduras y Colegio San Viator Jutiapa	Haur Hezkuntzako irakaslea (irakasle-ikasketak) (1) Lehen Hezkuntzako irakaslea (irakasle-ikasketak) (1) Zientzietako irakaslea (1) Gizarte-langilea (1)	Honduras	Jutiapa	4	4.000
007-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	Hermanas del Buen Socorro	HBS – La Esperanza Trujillo – Libertad	Ingeleseko irakaslea (irakasle-ikasketak) (1) Gizarte-langilea (1)	Peru	La Esperanza – Trujillo – La Libertad	2	2.000
008-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	Hermanas del Buen Socorro	Hnas del Buen Socorro - Pastoral carcelaria / Trujillo – La Libertad	Psikologoa (1) Matematikako irakaslea, IGZrekin (1) Natur Zientzietako edo Hizkuntzako irakaslea (1)	Peru	La Esperanza – Trujillo – La Libertad	3	3.000
009-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	Hermanas del Buen Socorro	Atención a mujeres violentadas de la Casa Refugio 'Hogar Belén' en La Esperanza (Trujillo)	Ingeleseko irakaslea (irakasle-ikasketak) (1) Gizarte-langilea (1)	Peru	La Esperanza – Trujillo – La Libertad	2	2.000
010-JVC-2025	Asoc Servicio Solidaridad San Viator de Euskalherria (SERSO)	Hermanas del Buen Socorro	Centro Siloé	Psikologoa (1)	Peru	La Esperanza – Trujillo – La Libertad	1	1.000
011-JVC-2025	Asoc Apoyo Hablante Pular-Haaly	SOS GV AIDES	Diogodiral Gasteiz-Futah (Unión Gasteiz-Futah)	Zientzia politikoak, irakasle-ikasketak, soziologia, nazioarteko harremanak, gizarte-lana, gizarte-hezkuntza edo filologiak (6)	Ginea Errepublika	Labé	6	6.000

Esp.	Euskadiko GGKE	Tokiko GGKE	Proiektua	Profilak	Herrialdea	Herria	Profil-kopurua	Emandako laguntza
012-JVC-2025	Fundación Ayuda en Acción	Ayuda en Acción Bolivia	Sensibilización en cultura de paz y valores a niños, niñas y adolescentes en la Amazonía boliviana.	Gizarte-hezitzailea (1) Psikologoa (1)	Bolivia	Trinidad - Beni	2	2.000
014-JVC-2025	Fundación Ayuda en Acción	Ayuda en Acción Veracruz	Intervención comunitaria integral en Altas Montañas, Veracruz	Ingurumen-zientziak, baso-zientziak (1) Agronomia (1) Pedagogoa, haur-psikologoa, haur-irakaslea (1)	Mexiko	Orizaba, Veracruz	3	3.000
015-JVC-2025	Asociación Africanista Manuel Iradier	Yhangal Bantal Brouwal	Impulso a un desarrollo armónico basado en el empoderamiento de las mujeres	Maisu-maistra (irakasle-ikasketak) (1) Sanitarioa. Erizaintza. Osasun komunitarioa. Garapen komunitarioa edo aurreikusitako jardueretara egokitzen den beste profil bat (1)	Ginea Errepublika	Labé	2	2.000
016-JVC-2025	Nazioarteko Elkartasuna Solidaridad Internacional	FADEC	Lucha contra la violencia de género mediante el empoderamiento económico	Soziologia, psikologia, antropologia, gizarte-lana, gizarte-hezkuntza. (1) Nekazaritza edo ingurumen zientziak (1)	Senegal	Kébémer	2	2.000
017-JVC-2025	Hermanas Pasionistas	Hermanas Pasionistas de Colombia	Antonieta Farani	Nutrizioan diplomaduna (1) Erizaintzan diplomaduna (1) Pedagogian diplomaduna (1) Pedagogian eta/edo haur-hezkuntzan diplomaduna (1)	Kolonbia	Pereira	4	4.000
018-JVC-2025	Asociación Jorge Adolfo Freytter Romero	Fundación Lazos de Dignidad	Curso de cooperación para la vinculación a la defensa de la conciencia crítica y el buen vivir	Giza eta Gizarte Zientzietako graduaurrekoa edo graduondokoa (2)	Kolonbia	Bogota	2	2.000
019-JVC-2025	Medicus Mundi Bizkaia	Ciudad Mujer	Fortaleciendo los DDSSRR y la atención integral a mujeres, en espacios seguros	Erizaintzaren arloan prestakuntza duen emakumea, ahal dela emakumeekin lan egin duena (2)	Honduras	Tegucigalpa	2	2.000
020-JVC-2025	Comunidad S. Francisco Javier o Procura Misiones Salesianas	Salesianos Tijuana	Proyecto Salesiano Tijuana A.C. 2025	Irakasleak, hezitzaileak, gizarte-langileak eta/edo - hezitzaileak, animatzaile soziokulturalak, psikologoak, pedagogoak, hezkuntza-orientatzaileak (2)	Mexiko	Tijuana	2	2.000
021-JVC-2025	Comunidad S. Francisco Javier o Procura Misiones Salesianas	Sociedad Salesiana Hogar Don Bosco	Proyecto Don Bosco (PDB) en Santa Cruz de la Sierra 2025	Komunikazioa, sare sozialen kudeaketaren ezagutza, ikus-entzunezko edukien sorkuntza (1) Hezkuntza Zientzia, Psikopedagogia edo Pedagogia (1)	Bolivia	Santa Cruz de la Sierra	2	2.000
022-JVC-2025	Nazioarteko Elkartasuna Solidaridad Internacional	AMLUDI	Empoderamiento de sobrevivientes en la atención integral a mujeres indígenas víctimas de violencia en 4 municipios de Sololá	Gizarte-zientziak: soziologia, gizarte-lana, gizarte-hezkuntza, pedagogia. Generoari buruzko prestakuntza (2)	Guatemala	San Lucas Tolimán	2	2.000

II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN 2025EKO «EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN» PROGRAMARAKO HUTSIK GERATU DIREN PROIEKTUAK ETA PROFILAK

Esp.	Euskadiko GGKE	Tokiko GGKE	Proiektua	Profila	Herrialdea	Herria	Profil-kopurua	Emandako laguntza
013-JVC-2025	Fundación Ayuda en Acción	Ayuda en Acción Mozambique	Documentando el Desarrollo Sostenible y la Ayuda Humanitaria en Mozambique	Komunikazioan, kazetaritzan, zineman edo lotutako arloetan lizentziatura edo maisutza (1) Informatikaria, sistema-ingeniaria, ekonomialaria (1)	Mozambike	Maputo	2	